



Euskadiko Lehendakaria

El Lehendakari de Euskadi

Vitoria-Gasteizen, 2014ko abenduan

Lagun agurgarriak,

Mexikora egin berri dudan bidaia ofizialean, nire bi begiekin ikusi ahal izan dut, beste behin ere, munduan bizi zareten euskaldunek zenbaterainokoa duzuen bat-izate sentimendua eta bizi-indarra. Aurkitu dudan jendea, bizi den lurrean dago errotuta, han dago integratuta, baina, aldi berean, Euskal Herri jatorrizkora ere badaude loturik, sentimenduz, gogo-minez eta zer-izatez.

Eusko Jaurlaritzaren eta Lehendakariaren misioa jatorrizko euskal erkidegoaren eta kanpoko euskal erkidegoaren lotura estutzea da, denok bat eta bera garen sentimendu aberasgarri hori indartzea. Horregatik aritzen gara lankidetzan 187 Euskal Etxeekin, Centros Vascos, Basque Clubs edo Maisons Basques, mundu osoko 25 herrialdetan. Datorren 2015ean, udazkenean, denok topo egiteko aukera polita izango dugu, Euskal Gizataldeen VI. Mundu Batzarrean, Gasteizen.

Gure mundu hau geroz eta globalagoa da, geroz eta irekiagoa, eta, bertan, Euskal Herriak ere nahi du non egona eduki, aitortua izan, bere ahotsa eduki. Horixe lortu nahi du Euskadi nazioarteratzeko estrategiak, "Basque Country Estrategiak". Euskadik erakundearen artean, ekonomian eta kulturaren munduan duen lekua indartzeko lan egiten du Eusko Jaurlaritzak. Eta gure herria nazioartera eramateko plan horretan zuek ere atxikita zaudete; zuek baitzarete, kanpoko euskal elkarteak, Euskadik munduan dituen enbaxadarik onenak.

Urtetan eta urtetan, ondo baino hobeto jakin duzue kanpoan ere euskal laratza gordetzen; eta gure misioa zuek egindako bide eredugarri horretan jarraitzea da. Gaur egun, badugu gure burua gobernatzeko gaitasunik; hura zaindu eta hobetu nahian gabiltza; herri modura hazten jarraitu nahi dugu; egunero-egunero erakundeak josteko eta euskal nazioa eraikitzeko gure ereduaren bidetik. Eta hori lortzeko, zuek ere parte hartzea eta laguntzea behar dugu, gure herriaren etorkizuna globala da-eta.

Aurrera begira jarrita, gure gobernuaren agendan bada urte bat gorritz nabarmendua: 2020a. Denborazko muga horretara heltzen garenerako, gure herriak dituen hiru apustu handienak irabaziak behar ditugu eduki: ekonomia bizkortzea eta enplegua sortzea; bakea sendo lotzea eta bizikidetzaren berreraikitzea; eta etorkizunerako estatus politiko berria berrestea, autogobernuan aurrera egin ahal izan dezagun eta Euskadi nazio modura aitortua izan dadin.

Helburu horiek erdiesteko behar dugu zuek ere parte hartzea. Euskadiren hazteko aukerak gure herria munduan hobeto eta sendoago txertatzearekin loturik daude; ondotxo dakigu hori. Gure inguruak garbi diosku oraina globala dela jada, eta etorkizuna are eta globalagoa izango dela. Aldaketa hori begi bistakoa da, eta hasi besterik ez da egin. Merkatu globalak bertan egon beharra eskatzen du, zuzenean eta bizi-bizi; eta, horregatik, gure proiektua nazioarteratzea da herri modura dugun etorkizunaren giltzarria.

José Antonio Aguirre Lehendakariak "Euskal Batasun" nahia jarri zuen mahai gainean; 2015ean, piztu dezagun ideia hura; horra hor gure erronka eta nire proposamena. Hala egiten baldin badugu, Euskadi produktibo, garatu, elkartasunzale eta bakezkoaren enbaxadoreak ere izango gara, mundu osoan. Merezi du gure kulturarekin eta tradizioekin lotzen gaituen katea indartzea. Merezi du berrestea euskal erkidego bat eta batua garela munduan. Merezi du egokitzen ahalegindu gaituzten, gure herria ez dadin itsaso globalean betiko urtu. Merezi du "Basque Country Estrategia" denon artean garatzea, gure herria aurrerantzean ere erreferentzia bizi eta ekina izan dadin, mundu global honetan nortasun eta etorkizun duna.

Eguberriak bertan ditugula-eta, bihoazkizue niganetik, Euskadiko Lehendakariarengandik, denik eta besarkadarik beroena eta urte berrirako desiorik onenak. Gabon zoriontsuak eta Urte Berri on!

Iñigo Urkullu Renteria